

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

37/2025 Foru Dekretua, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 1eko 31/2025 Foru Dekretua aldatzeari, zeinaren bidez onetsi baitziren ardotarako mahatsetarako nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planetan sartutako nekazaritza aseguruak kontratatzeke laguntzen oinarri arautzaileak eta 2025-2026 kanpainarako deialdia

Foru Gobernu Kontseiluak, 2025eko abuztuaren 1ean, Nekazaritza aseguruak kontratatzeke laguntzak emateko oinarri arautzaileei eta 2024-2025 kanpainarako deialdiari buruzko 31/2025 Foru Dekretua onetsi zuen, eta mahastietako aseguruak dagozkien aseguru lerroak lagundu ziren diruz (ardotarako mahatsaren ustiatzeirako aseguru edo lerro baliokidea urteko ekitaldi bakoitzean, Araban aplikatzeko bada).

Dekretu horrek aipatutako laguntzak arautzen ditu, Agrupación Española de Entidades Aseguradoras de Seguros Agrarios Combinados SA (Agroseguro) elkartearekin egindako hitzarmen batean xedatutakoan oinarrituta. Hitzarmen hori sinatzea Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak onetsi zuen, Nekazaritza Sailaren uztailaren 30eko 248/2025 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera.

Foru Dekretu horretan akatsen bat, idazketa aldaketaren bat eta hobeto ulertzeko azaldu behar den punturen bat antzeman dira. Era berean, puntu bat gehitu behar zaio 8. artikuluari, berariaz jasotzeko Agroseguroarekin egindako hitzarmen sistemaren bidez laguntzari buruzko hainbat ebazpen eman daitezkeela urtero.

Bestalde, 2026ko kanpainarako mahastietarako polizak izenpetzeko epea 2025eko azaroaren 1ean hasiko denez, Agrosegurok kanpaina horretarako polizen deialdia izapidetzen hasteko eskatu du, polizen harpidetza aldia azaroaren 1etik aurrera hasten denean jada onetsita egon dadin eta hitzarmenean ezarritako sistema harpidetza aldia hasten denetik aplikatu ahal izan dadin.

Beraz, mahastien aseguruetarako laguntzen 2026rako deialdia onetsi behar da, gastua aldeztu aurretik izapidetzeko prozeduraren bidez, eta horri aurre egiteko behar den kreditua erreserbatu behar da, izapidetze aurreratuaren prozeduraren bidez.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Horrela, azaldu ditugun aurrekarietan, behar bezala justifikatu da araudi berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduna neurritzeko da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienekora mugatu baita. Horretarako, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Era berean, kontuan hartu dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharra. Horrez gain, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko

arauketak, duen izaeragatik, ez du eragiten administrazio zama osagarririk ez alferrikakorik herri-tarrentzat, oro har, ez eta baliabide publiko gehiago erabiltzea ere. Sinpletasunaren eta ulerga-rritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulargarria erabiliz idatzi da.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 31/2025 Dekretuaren eranskinaren 4. artikularen 2. eta 5. puntuak aldatzea. Honela idatzita geratuko dira:

4.2. Laguntzen zenbatekoa ENESAk emandako laguntzari urtero deialdi bakoitzean ezarriko den ehunekoa aplikatzearen emaitza izango da, artikulua honetan ezartzen diren murrizketekin.

ENESAk emandako laguntzaren zenbatekoa Arabako Lurralde Historikoko kokatuta dauden eta eskatzailearen ustiatzean ALHko Mahastien Erregistroan sartuta dauden lurzatiei dagokiena besterik ez da izango.

Dirulaguntza osoak, zeina autonomia erkidegoko dirulaguntzak eta Estatuko dirulaguntzak osatzen baitute, ezin izango du gainditu oinarriko merkataritza prima garbiaren ehuneko 75 erre-karguak kontuan hartu gabe, kontuan hartuta administrazio publikoek emandako laguntzen zenba-tekoak ezin izango duela gainditu Europako Batzordearen Jakinarazpenaren bidez (2022/C 485/01) argitaratutako nekazaritza eta basogintza sektoreetako eta landa eremuetako estatu laguntzei aplikatu beharreko Europar Batasunaren zuzentarauetan ezarritako gehieneko intentsitatea.

Bestalde, polizaren kostu garbiaren ehuneko 65eko muga ezartzen da, eta Arabako Foru Aldun-diari dagokion zatia batuta, ezingo da gainditu. Balizko murrizketa horiek ezartzeko, kontuan har-tuko dira laguntza kudeatzeko ezarritako hitzarmena betez nekazaritza aseguruari jakinarazitako diruz laguntzeko moduko lurzatiak. Lurzati horiek mahastizaintzako kanpaina hasten den egunean Ustiatzearen Erregistroan jasotakoak izango dira.

Balizko murrizketa horiek ezartzeko, kontuan hartuko dira laguntza kudeatzeko ezarritako hitzarmena betez nekazaritza aseguruari jakinarazitako diruz laguntzeko moduko lurzatiak. Lur-zati horiek Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan ustiatzeari lotutakoak izango dira, mahastizaintza kanpaina hasten den egunean.

4.5. Oro har, laguntza bat baino ez da onartuko ustiatzei bakoitzeko. Hala ere, deialdi bakoit-zak berariaz zehaztu ahal izango ditu arau horren salbuespenak, eta aukera emango du la-guntza bat baino gehiago emateko hala ezartzen denean, bereziki deialdi horretan diruz lagun daitezkeen poliza osagarriak daudenean.

Bigarrena. 31/2025 Foru Dekretuaren eranskinaren 7. artikularen 1. puntua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

1. Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzak Agrupación Española de Entidades Asegura-doras de los Seguros Agrarios Combinados SArekin (Agroseguro) sinatutako hitzarmenaren arabera kudeatuko dira.

Hirugarrena. 31/2025 Foru Dekretuaren eranskinaren 8. artikularen 3., 7. eta 8. puntuak aldatzea. Honela idatzita geratuko dira:

3. Agrosegurok aurkeztutako ziurtagiriak oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko eta ziurtatzeko aztertuko dira, eta horrela sortutako kide anitzeko organoak baloratu ahal izango ditu. Organo horrek txosten bat egingo du egindako balorazioaren emaitzarekin, eta bertan proposamenak azalduko dira, arrazoiak adierazita.

7. Laguntzak emateko ebazpenek espediente bakoitzean ezarriko dute zein izango den laguntzaren zenbatekoa. Laguntzaren zenbatekoa aldatuz gero, arrazoia eta, hala badagokio, ehunekoa zehaztuko dira.

8. Urtean zehar laguntza emateko hainbat ebazpen eman ahal izango dira, urtean zehar aurkeztutako ziurtagirien eta horien kudeaketaren arabera.

Laugarrena. Laguntza deialdia 2026. urterako onestea, honako hauek kontuan hartuta:

Lehenengoa: Kreditu erreserba: 400.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40104. G/419401/47900402/2026 "Mahastietako aseguruaren kontratazioa sustatzea" partidaren kontura. Zenbateko hori dagokionean xedatu eta ordainduko zaio Agroseguro SA entitateari, hark aurkeztutako eta Nekazaritza Sailak onetsitako likidazioetan oinarrituta.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein ziorengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

Bigarrena: Diruz lagunduko diren polizak 2025-2026 mahastizaintza kanpainarako sinatutakoak izango dira, hau da, 2025eko azaroaren 1etik 2026ko maiatzaren 31ra bitartean sinatutakoak, bai eta 2024ko azaroaren 1etik 2025eko maiatzaren 31ra bitartean sinatutakoak ere, baldin eta aurreko deialdiaren zain geratu badira.

Hirugarrena: Diruz lagundu daitezkeen aseguru motak: 2024an eta 2025ean indarrean dagoen Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Plan Nazionean jasota dagoen eta Penintsulako eta Balear Uharteetako ardotarako mahatserako Berme Gehigarriak dituen Oinarritzako Aseguruaren lerroari dagozkionak, eta Arabako Lurralde Historikoan kokatutako lurzatietan aplikatzekoak, eta modulu hauek:

SB+GA 1, SB+GA1+GA2 moduluak (GA4rekin edo gabe) eta SB+GA1+GA2+GA3 moduluak (GA4rekin edo gabe): ENESAren dirulaguntzaren ehuneko 45 P moduluak: ENESAren dirulaguntzaren ehuneko 30.

Soilik zenbatuko dira Mahastien Erregistroan inskribatutako azalerarekin bat datorren azalera duten esparruak; edonola ere, oinarri arautzaileetan ezartzen diren murrizketak egin ahalko dira.

Laugarrena: dirulaguntzaren gutxieneko muga polizako 100,00 eurokoa izango da, eta gehieneko muga 2.200,00 eurokoa. Ustategi bakoitzeko poliza bakarra lagunduko da diruz, eta ez da poliza osagarririk diruz lagunduko.

Bosgarrena. Nekazaritza Saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA